

Erakundearen, produktuaren, zerbitzuaren edo ekitaldiaren karbono azterna kalkulatzeko eta murrizteko

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Diruz lagundu ahal izango dira:

a) Erakundearen karbono azterna kalkulazea, 1+2 irismenarekin, eta azterna hori murrizteko plan bat egitea.

Arestian adierazitako irismenak GHG PROTOCOL protokoloan jasotako 1 eta 2. irismenei erantzungo die, edo ISO 14064-1:2018 arauaren 1 eta 2. kategoriei (zuzeneko eta zeharkako isuriak, hurrenez hurren).

Karbono azterna kalkulatzeko, honako kalkulagailu hauetako bat erabili beharko da:

1.- Erakundearen karbono azterna kalkulatzeko tresna, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa (2007-2021 urteetarako).

2.- Erakundearen karbono azterna kalkulatzeko tresna, IHOBE (2005-2020 urteetarako).

b) Erakundearen karbono azterna kalkulazea, 3. irismenekoa (1+2 irismenak barne) eta azterna hori murrizteko plan bat egitea.

Erakundearen karbono azterna kalkulatzeko, metodologia hauetakoren bat erabili beharko da:

- UNE-EN ISO 14064-1:2019. Berotegi efektuko gasak. 1. zatia: Orientazioarekin zehaztea, erakundearen mailan, berotegi efektuko gasak kuantifikatzeko eta isuriaren eta kentzearen txostena egiteko (ISO 14064-1: 2018).

- GHG PROTOCOL. Corporate Standard: A Corporate Accounting and Reporting Standard; y Corporate Value Chain (Scope 3) Accounting and Reporting Standard

Erakundearen karbono azterna kalkulatu ahal izango da urte bakarrerako, ahal dela, 2021erako, edo 4 urterako (2018-2021).

a) eta b) ataletako karbono azternak inskribatu beharko dira Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren karbono azternaren, konpentsazioaren eta karbono dioxidoa xurgatzeko proiektuen erregistroan (martxoaren 14ko 163/2014 Errege Dekretuak sortua) eta hori egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko du. Ezinbestekoa izango da azken justifikazioa egiteko momentua ziurtagiri bidez egiaztatzea.

c) Produktu, zerbitzu edo ekitaldi bati lotutako karbono azterna kalkulazea eta azterna hori murrizteko plan bat egitea.

Produktu edo zerbitzu baten karbono azterna kalkulatzeko, metodologia hauetakoaren bat erabili beharko da:

- GHG Protocol: Product Life Cycle Accounting and Reporting Standard

- UNE-EN ISO 14067:2019 Berotegi efektuko gasak. Produktuen karbono azterna. Kuantifikatzeko baldintzak eta jarraibideak. (ISO 14067:2018)

Ekitaldi baten karbono azterna kalkulatzeko, erakundearen karbono azterna kalkulatzeko a) eta b) ataletan adierazitako estandarrak erabili beharko dira.

Erakundearen, produktuaren, zerbitzuaren edo ekitaldiaren karbono azternaren kalkularekin batera aurkeztu beharko da hori murrizteko planaren definizioa.

Nork tramitatzen du

- INGURUMENEN ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DPTUA.
- Ingurumen Zuzendaritza Nagusia

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Agiri eta ereduak sarrera](#)

Internet bidezko eskaera

[Sakatu izapidetzara joateko](#)

INFORMAZIO OSAGARRIA

Informazio gehigarria

[Informazio zehatza](#)